

Soraren hil ala biziko partidua asteburu honetan

Or' pilailean

Soraluzeko Hamabostekaria 49. alea 2002ko martzaren 17a

Etxebizitzen egoera Soraluzen

**100 Etxebizitza baino gehiago
egingo dira datozen 5 urteetan**



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Instalaciones Kalebarren S.L.



**GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN**

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58


E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Mendata taberna



Berezitasunak:
*Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)*

Kalebarren, 5

Tfnoa 943 75 13 87



Itxura fisikoaren esklabu?

ANE YABAR

Nahiz eta aurreko eguraldi onak oraingoz agertu nahi ez duen, gehienok atera ditugu udako erropaz betetako poltsak eta armairuko beroki potoloa erroparinez azkar asko pozik ordezkaturik. Hala ere, gure poza ez da horrenbestekoa izan bainujantzi edo bikinia jantzi dugunean. Espilu aurrean jarri eta segituan pentsatzen jarriko gara hondartzako denporen aurretik gelditzen zaizkigun hilabete apurretan jarraitu beharreko dieta eta ariketa saioetan.

Zergatik neurrigabeko ardura hau? Bereziki emakumeei zuzendutako aldizkariak ez dute beste aipagairik: kaloria gutxiko dietak nola jarraitu, Cindy Crawford-en pareko gorputza edukitzeko ariketa taulak... Telebistatik ere gorputz liraina edukitzea pozik bizitzeko beharrezko baldintza dela adierazi nahi digute, bizitzan arrakasta zihurtatzeko premiazkoa bihurtu dena alegia. Telebista serietako aktore/aktorea gehienak modelo kasting batetatik aukeratutakoak dirudite eta ukazina da emakumeen kasuan sarriago gertatzen dela hau, honek dakarren emakumeenganako presio handiagoaz noski.

Azkeneko urte hauetan, egoera larriagoak dira. Gorputz argal edo perfektua edukitzea eskatzen digute eta guk inozoen pare, beraiek agindutakoa betetzen saiatu. Honek sortarazten dituen frustrazio kasuak milaka dira eta are larriagoak diren eta urtero goraka doazen anorexia eta bulimia kasuak zer? Bestalde, "fisikoa zaintzeaz" ari garenean, kanpo itxuraz dihardugu osasunaz beharrean. Desberdindu beharreko gauzak dira ordea. Askotan kanpoko itxura zaintzen dugu berez garrantzitsuagoa den gure osasuna kontutan hartu gabe.

Komunikabideen bidez hedatutako mezu kaltegarri hauen bonbardaketaren aurrean, begiak zabaldu eta honekin kritikoak izaten ikasi behar dugu. Gurasoek semeen heziketan duten garrantzia ere ezin da gutxietsi. Beraien semei egoera honen aurrean errealitatea eta telebistako fikziozko mundua desberdintzen lagundu beharko liekete.

Argi dago azken finean, bakoitza norbere gorputzarekin gustura egotea dela garrantzitsuena eta horretarako neurri bereziak hartu behar badira inoiz obsesiora heldu gabe dela, eta gure osasunak ezartzen dituen mugen barruan. Guzti hau adierazteko analogia modura adibide bat datorkit burura: zer dugu nahiago, itxura bikaineko insekizidaz eta herbizidaz jositako marrubi zaporea edo itxura kaxkarragoko baserriko marrubi txiki baina osasuntsua? Nik egina dut aukera.

Telegrapak

Aupa. Stop. Udaletxian ez da giro. Stop. giro onik ez behintzat. Stop. hasarretu dira berriro. Stop. txintxo ibili zaittie gero... Stop. hauteskundiak segiduan dira eh!. Stop. Gaztetxian bai daguala giro ona. Stop. diru gutxi baina lanerako gogo haundixa. Stop. etxoin pixkatzen eta ikusiko dozue... Stop. Soraluzeko Txironan (Isitutuan) presuak matxinatu egin dira. Stop. Pil-pileanek eurekin bat egin eta adierazpen askatasunaren aldeko komikixa kaleratu dau ale honetan. Stop. Ikasle zintzuak maisu maistra gaiztuen aldetik jasaten dituzten tratu txarrak ezin leizke onartu. Stop. MATXINATU! . Stop. Eta Herri Urratsera zer?. Stop. hortara be matxinatu egin da jentia ala?. Stop. ba hola bada, euskararen aldeko militantzia behera doia arriskutsuki. Stop. ba oindio badago zer egin eh!. Stop. Kantu afarixan egongo gara. Stop. bazatoz ezta?. Stop. 19:30etan poteua, ez ahaztu. Stop. Hurrengo alerarte, ondo bizi.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Herrian, 50-60. hamarkadetatik ezaizgutzen ez zen moduko hazkunde ematen ari da eta datozen urteetan 100 etxebizitza berri baino gehiago eraikiko direla aurrakusten da. Soraluzek Deba Barreneko bailara osoko eraberritze tasarik altuena du momentu honetan. Gainera, inguruko herrietako etxebizitzak baino askoz merkeagoak dira, eta horrek Soraluzetarrak herrian gelditzera edo kanpotarrak Soraluzera etortzera bultzatu lezake.

Errekaldeko 5 etxebizitzetatik 3 salduta daude

Zorion agurrak



Itxaso Valero
Zorionak!!!
2002 - 5 - 11
Muxu haundi bat!!
Etxekuak.



Lierni Elizburu
Zorionak sorgintxo!
2002 - 5 - 5
Lehegusina guztien
partez.



Ainhoa Arruabarrena
Zorionak !
2002-05-8 16 urte
Zorionak guapisima!
Alaitu aurpegi hori,
laister udia dator eta.
Etxekuak



Irune Varela
Zorionak potxola!
2002 - 5 - 20
Konturatu baino lehe,
neska haundi eta
politta bihurtu da.
Orain arte bezain alai
eta guapa jarraitu
eizu. Etxekuak.



Ana Mari Gil
Zorionak!
2002-06-2 40 urte
Oin arte moduan
jarraitzen bozu, ala-
bian kuadrilakuekin
hasi biharko dozu
urtetzen. Etxekuak



Ane Larreategi
2002-06-2 19urte
Zorionak
"Ricitos de Oro"!
Lagaixozu botiari eta
hasi pentzatzen opo-
retatik ekarriko dos-
kuzun amerikana-
kin.

Kuadrilakuen partez.



**Idoia Hernandez eta
Uxue Ariznabarreta**
Urte bat
Zorionak bikote!
Baina zelako polittak
daren gure txikixak.
Etxekuak.

Haimar Bengoa
2002-5-12 11 urte
Zorionak potxolo!!!
Jarraitu alai alai eta jatorra izaten.
Txurrukeneko laguneren partez.



Maribel Altuna
Zorionak!
2002-05-22 37 urte
Zorionak eta muxu
haundi bat etxekuen
partetik.

hildakuak

jaiotakuak

Irene Etxezarreta
Jon Oregi
Xabier Montero

Agenda

EGAZTELUPEN KONTZERTUA
Maiatzaren 19xan IGANDEA
22:00etan TERRY LEE HALE
Walkabouts, Screaming Trees,
Soundgarden, Young Fresh Fellows,...
bezalako taldeekin aritutakoa
+ PETTI

ARITZ LASKURAINEN DEBUTA
Maiatzaren 19xan
Bergarako Udal Pelotalekuan

KALEKO X. MARGO LEHIAKETIA
Maiatzaren 26xan Igandea
Izen ematea egunean bertan.

JAIXETAKO KARTEL LEHIAKETIA
Ekainaren 7ra bittartian
Herriko artistei zuzenduta.

Gutunak

ALKATETZA

Aspaldiko kontua da kudeaketarena. Udaletxea bezalako organizazio batean, talde politikoz osatuta dagoen instituzioan, non botoen arabera antolatzen baita indar metaketa, nola hartu erabakiak baita lerro hauetara ekarri nahi duguna. Ezin dugu ahaztu bestalde, udaletxe bateko azken helburua efikazian datzala.

Soraluzeko Udaletxean neurri politikoetan oinarrituta dauden erabakiez gain, neurri administratibo ugari hartzen baita. Ia denak, alkateak berak hartutakoak, zinegotziok ezer jakin gabe.

Udaleko funtzionamenduari dagoen kionez, inoiz aurretik ezagutu ez dugun garrantzi handiko aldaketa eman da le-

gealdi honetan, hau da, alkateak udalari eskeintzen dion egun osoko dedikazioa. Hau kontuan hartuz, kudeaketan ere, nazaritzeko moduko aldaketak eman behar direla deritzogu. Horretan ahaleginak egin behar direlakoan gaude, inoiz Soraluzek aurrean dituen erronkei heldu nahi badiegu.

Alkatearen betebeharreri helduz, funtzioak zehaztu beharra ikusten baitugu; taldeen lana sustatuz, batzordeen koordinaketa modu horizontalean erabiliz, funtzionamendu egokia ziurtatu beharko luke alkateak.

Egon badaude beste estilo batzuk pertsonalaz gain, guztion eginbeharra efikazagoa bihurtuko luketenak, izan ere, orain artekoa baino koordinazio ho-

beagoa lortuko genuke eta dauden arazoak egokiago erantzun. Horien artean, taldeengan konfidantza jartzen duena izango litzateke estilo bat, edo, bestea, teknikarien ahotsak arreta gehiagorekin entzungo zuena.

Batzordeetan oinarritzen den kudeaketa da, gure ustetan, abantaila gehien eskeiniko ziguna, besteak beste, errekurtsoen erabilera egokiagoa egingo litzatekeelako, lanen banaketa bultzatuko lukeelako, erabakiak onartuagoak izango zirelako, informazio hobetua izango genuketako denok, eta azkenik, komunikazioa hobetu egingo litzatekeelako.

Batasuna-ko Zinegotzi Taldea



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



Herriko berrixak


ASTEARTERO
12:40AN

**Enteratu zaitte herri-
xan gertatzen diran
azken nobedadiekin !**

Pil-pileanen eskutik.

Zer irizten dotsazu?**Badaukazu kantu zaharrak kantatzeko ohiturarik?****Hilario Iturbe**
81 urte Jubilatua

Nik ia ez dot abesten ze ez naiz akordatzen, baina gure gazte denporetan asko kantatzen genduan kalia eta tabernetan. Gainera gure jefia, Rafael Goenaga, demasa zan abesten ta txisiak kantatzen.

**Aidor Aizpuru**
24 urte Ikaslia

Bai, nahixau dittut oinguak baino afarixetan ta lagunekin abesteko. "Izarren hautsa" adibidez asko gustatzen jata.

**Leire Mancha**
13 urte Ikaslia

Ez, ze oso gaizki kantatzen dot. Nahixau dot bestiak abestu ta nik entzutia.

**Maria Cristina Sologaitoa**
eta Markel Fernández
69 urte Jubilatua

Bai, antziñako abestixak, nere aittak abesten zostazenak. Gehixenetan afariren bat edo giro animaua dauanian kantatzen dot.

**Koldo Ugarte**
45 urte Irakaslia

Bai, edozein afarittan abesten dot ze asko gustatzen jata. "Boga boga"tik hasi ta tokatzen dana kantatzen dogu.

**Esther Iñurrieta**
40 urte Umezaina

Bai, asko gustatzen jata ta etxian ohitura haundixa daukagu. Nere seme-alaberi, txikixak ziranian abesten notsen ta oin zaintzen dittuteneri be bai.

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

MENDIZABAL

OKINDEGIA



Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Soraluze-Elosu estazio megalitikoa zaintzeko proiektua



Aranzadi Elkarteko Historiaurreko sailaren ekimenez, Soraluze-Elosu estazio megalitikoa babestu eta ezagutzera emateko proiektua egingo da. Egitasmo honen helburuetako bat, hondareari, lege aldetik oinarri sendo bat ematea da. Orain bi urte, Jaurlaritzak Kultura Hondare izendatu zuen estazio

megalitikoa baina izendapen honek monumentu megalitiko bakoitzaren inguruan 5 metroko babes gune bat ezartzen du bakarrik eta hau ez da nahikoa hondarearen gutxieneko iraupena ziurtatzeko.

Estazio megalitikoaren zatirik handiena Soraluzeko lurretan dagoenez Aldundiaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaz gain, Soraluzeko Udalak ere, zenbait lanen ardura hartzea aurrakusten da. Esaterako; dolmen eta tumuluen inguruko datuak udaletxeko katastroan ezartzea eta lur jabeen baimena eskatu ostean, inguruan mugarrak jartzea dira lanetako batzuk. Honekin batera eta egitasmoaren eraginkortasuna handitu nahian, Aranzadi Elkarteko Udaleko arduradun eta lur jabeekin batera joango dira eta tumuluen historiaren berri emango diete.

Ibilbide homologatu izendatzeko eskaera Jaurlaritzari

Soraluzeko Udaleko Nekazaritza Sailak eta Mendi Taldeak bat eginda, mendigaina ibilbide homologatu izendatzeko eskaera egin zaio Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ingurugiro Sailari. Eskaera hau, Deba Barreneko beste Udak eta Mendi Talde batzuek aurkeztutako ibilbideen artean dago, aukeratu beharreko 11 ibilbide homologatuen artean egoteko itzaropenez. Jabier Garmendia nekazaritza zinegotziak azaldu digunez; "hasiera baten Ezozittik Mendotz ingurura doian bidia be sartu nahi zan baina azkenian baztertu egin zan aukera hori".

Jaurlaritzak, Soraluzek egindako



proposamena onartuko balu, mendigaineko bidea txukundu eta seinalizatzeko dirulaguntza jasoko luke Udalak eta Debemen elkarteak hartuko luke lanak aurrera eramateko ardura.

Egoitz Unamuno

Angel Murgoitio Soraluzetar presoak gose greban

Madriden preso dagoen Anjel Murgoitio Soraluzetar presoak, astebeteko txandakako gose greba bati ekin zion joan zen astean. Gose greba honekin, Euskal Presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidea aldarrikatu nahi izan dute, gainontzeko eskubideen zapalketa eta torturaren praktika gaitzetsiz.

KZ Gunean; % 67a emakumezkoak

Joan zen astean ezagutarazi zituen KZ Guneak, bertan izena eman duten erabiltzaileen inguruko datuz osatu diren estatistika taulak. Datu hauen arabera: KZ Gunearen orainarteko 261 erabiltzaileen artean % 67a emakumezkoak osatzen dute eta %33a besterik ez gizona. Lanbideari dagokionez; aktiboki lanean diharduen jendea da nagusi %40 inguru eta etxekoandreak datoz hurrengo %32arekin, gainontzekoak langabetu, jubilatu eta estudianteez osatzen dute. Adinean berriz 35-44 urte bitarteko jendea da gehien hurbildu dena (%30), 25-34 urte bitartekoak ere dexente (%23) hurbildu dira eta ez ordea jubilatuak (%7). Datuek argi erakusten dute, etxekoandreei internetaren mundua ezagutzeko gogoia piztu zaien moduan jubilatuak ez dutela behar hori sentitu eta ondorioz ez dutela KZ Gunea bisitatu.

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa Berogailuak Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea
Tifonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tifonoa: 639 17 96 96



BELARRAK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telfnoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE




Soraluzetarrak San Isidro Egunean



Maiatzaren 15ean izan zen Arraten, urtero Deba Barreneko baserritarrek biltzen dituen San Isidro Eguna. Soraluzeko baserritar eta kaletar batzuk ere bertan izan ziren.

Soraluzeko abadea Itziarko gau ibilaldiaren arduradun

Jokin Mitxelena Soraluzeko abadea izan da, aurten 50. edizioa ospatu duen Itziarko Gau Ibilaldiaren arduradun nagusienetariko bat. Aurten, urrezko ezteiak ospatzeko "Itziarko Gau-Ibiladia 1.952-2.002" izeneko liburua kaleratu dute. Aurtengo edizio berezi honetan, eguraldi kaxkarrari aurre eginaz 1.500 pertsona inguruk hartu dute parte (tartean Soraluzetar batzuek ere bai) "Fedearen testigu, Mariaren ildoan" goiburupean.



Motorzaleen 5. Topagunea

Datorren ekainaren 9an ospatuko du Soraluzeko Moto Klub Plaentxi taldeak, Motorzaleen 5. Topagunea. Goizeko 10:00etan, motorzaleen izen ematea egingo da. Ondoren, ibilbide bat egingo da probintzian zehar. Ibilbidea 13:30etan amaituko da eta orduan luntxa egingo da eta erregaliak banatuko dira ekitaldiari amaiera eman aurretik.

Batasunako zinegotziek alkatearen jarrera salatu dute

Batasunako zinegotziek, Alberto Sudupe alkateak "azkenaldi honetan azaldu duen" jarrera salatu dute idatzi batzuen bitartez. Batasunako zinegotziek kaleratutako idatzietan, beste gauza batzuen artean, alkateak Udala "enpresa bat balitz moduan" gestio-natzen duela eta "herriak kudeaketa garbia behar du"ela "ez pertsonalizatua adierazten da. Alkatearen hitzetan, "egunian 10 ordu lan egiten ditut eta ez da egia nik hau enpresa moduan erabiltzen dotela. Kontu guztiak Gobernu Batzordetik pasatzen dira eta batzorde hori irekia da".

Egoitz Unamuno

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375



**HNOS. BENITO
ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Lonbide taberna

**Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak**

**Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07**



Etxebizitzen egoera berria herrian



Amutxastegi lantegia ren lurreta 40 etxebizitza egin dira. Garajeak 2.pisuan egongo dira eta igogailu batek jasoko ditu.

Azken urteotan, 80. hamarkadan birmoldaketa industrialak utzitako arrastoak eraberritzen hasi denetik, hirigintza alorreko eraberritze handia ari da jasaten Soraluze. Etxebizitza berrien eraikuntza esaterako; herrian 50-60. hamarkadetatik ezagutzen ez zen moduko hazkundea ematen ari da eta datozen urteetan 100 etxebizitza berri baino gehiago eraikiko direla aurrirakusten da. Soraluzek Deba Barreneko bailara osoko eraberritze tasarik altuena du momentu honetan. Gainera, inguruko herrietako etxebizitzak baino askoz merkeagoak dira, eta horrek Soraluzetarrak herrian gelditzera edo kanpotarrak Soraluzera etortzera bultzatu lezake.

1.999an Udalak etxebizitza eskaren inguruan egindako azterketa

1.999ko Abenduan Udalak herriko 227 familiaren artean egin zituen galde-

Etxebizitza berriak 16 miloi (60m²) eta 27 miloi (85m²) bitarteko prezioetan daude

keten emaitzek argi erakusten dute, Soraluzen etxebizitzen eskaera handia dagoela. Datu hauen arabera, Soraluzetarren %33ak bizitokiz aldatzeko beharrian ikusten du bere burua, aldaketa hau egiteko gehiengoak aipatzen duen arrazoi nagusia, independizatzeko beharra delarik. Etxebizitza aldaketa egin nahi dutenengandik %70ak babes ofizialeko etxebizitza batera joan nahiko luke. Alokairuan bizi nahi luketen pertsonen portzentaia berriz %10ekoa besterik ez da. Hala ere, begibistakoa da azken urteetan alokairuaren kultura hedatu dela (batez ere gazteen artean) eta eskaerak gora egin duela nabarmen. Gainontzean, pentsatzekoa da ordutik hona herrian etxebizitza berri asko egin ez denez, da-

tuek antzeratsu jarraituko dutela gaur egun.

Etxebizitza berriak ondo ari dira saltzen

Eskaera handi horren lekuko dira, etxebizitza berrien salmantan lortzen ari diren datu onak.

Amutxastegi lantegia zegoen eremuan 40 etxebizitza berri dihardute egiten eta Julita inmobiliariatik jakinarazi digutenez, dagoeneko 40 haueetatik 20 salduta daude. Gehienbatean herriko bikote gazteak omen dira etxeak erosten dihardutenak baina Eibar eta Bergara inguruko jende mordoak ere ari omen da interesa azaltzen. Eraikuntza honetako etxeak 16 miloi (60m²) eta 27 miloi (85m²) bitarteko prezioetan daude salgai (garajeak 2 miloi inguruan), Eibar edo Elgoibar moduko herrietan berriz, 24 eta 40 miloi bitartean daude etxebizitzak.

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Lakuesta

Optika

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea

20590 Soraluze

Tfnoa 943 75 30 59

Atxuri kalean, Erresidendia parean egiten diharduten etxebizitzak denak omen daude salduta dagoeneko. Hemen ere, herriko bikote gazteak eta Eibarko jendea omen da etxeak erosi dituenak.

Errekalden berriz, 5 etxebizitzatik 3 omen daude salgai oraindik. 19 Milotik hasita 3-4 geladun 85m² dun etxeak daude salgai eta 115m² ko bat ere bada-go.

Inmobiliarien esanetan, salmentari aurre egiteko kanpotik etorri beharko du jendeak

Baltegieta kalean, Eibar alderantz Kañoi Fabrika baino aurrerago ere egingo omen dira etxebizitza berriak. Hauek 18 Miloi eta 21 miloi bitarteko prezioa izango omen dute. 6 Duplex eta 4 etxebizitza arrunt egingo dira eta berezitasun bat izango dute guztiek ere, domotika teknologia ezarriko zaiela. Dagoeneko hasi omen da jendea etxebizitza hauek erosteko erreserbak egiten. (Hala nahi izan ezker etxebizitza hauen inguruko informazio gehiago jaso dezakezue ondorengo telefonoetan: Julita 943 75 1658 eta Inmobide 943 429574).

Aurrera begira, Sazian egingo diren babes ofizialeko 40 etxebizitza inguruk eta Udalak Maisuen Etxea deitzen etxean behar bezela egokitu ostean salgai jartzeko asmoa duen 9 pisuek erabat aldatuko dute etxebizitzaren inguruko egoera herrian. Inmobiliarien esanetan, salmentari aurre egiteko kanpotik etorri beharko du jendeak, Soroluzen ez omen dago eta horrenbesteko eskeintzari erantzuteko beste eskari.

2. Mailako etxebizitzak, alokairu eskaera eta etxebizitza hutsak

2. Mailako etxebizitzetan ezinezkoa da dagoen salgai dagoen etxebizitza kopuruaren berri zehatza jakitea baina inmobiliarietatik jakinarazi digutenez nahiko ugariak dira. 9 Miloi balio leza-



Baltegieta kalean 10 etxebizitza eraikitzea aurrirusten da.

keen 70m²ko pisuetatik hasi eta 15m²loiko prezioa duen 82m² bitarteko etxeak aurkitu litezke. Hori bai, gehientsuenak 40-50 urte baino gehiago duten etxeak dira, horietako batzuk gainera egurrezkoak. Batez ere atzerritik datorren jendea omen da 2. mailako etxebizitzak erosten dituenak.

Alokairuari dagokionean, eskaria izugarria da baina eskari horri erantzuteko eskeintza oso oso baxua da.

Alokairuari dagokionean berriz, eskaria izugarria omen da baina ez omen dago ia eskeintzarik. Badirudi, "arazo beldurrez" jendeak ez duela etxea alokairuan jarri nahi izaten. Honekin batera, etxebizitza hutsen kopuru handiak arazo izaten jarraituko du.

Herriak egonkortasun demografikoa bilatzeko aukera izango du

Azken urteotan, Soroluzeko biztanleriak dituen gora beherei begiratuta; argi ikusten da herriak azken urteotan

biztanlego kopuruaren aldetik jasan duen jetsiera handia izan dela. Esaterako; 1.976an 6.057 pertsona bizi ziren herrian eta 1.995ean, kopuru hau 4.556raino jeitsita zegoen.

Badirudi azken bi urteotako datuek, jeitsiera hau moteldu eta egoera egonkortu egin dela adierazten dutela; 2.001. Urtean Soroluzek 4.181 herritar zituen eta aurten kopuru hau 5 pertsonatan jeitsi da, 4.176 biztanleko kopurura heldu arte. Egitea aurrirakusita dauden 100 etxebizitza baino gehigok, herritarrei herrian gelditu eta inguruko herrietako jendeari (Eibartarrak, Elgoibartarrak, Bergararrak...), Soroluzen etxebizitza merkexegoetan bizitzeko aukera eskeiniko die. Hala ere, kanpotik jendea etortzeak baditu bere arriskuak herriko bizimoduarendako, Soroluzek lotarako herri huts bihurtzeko baldintza guztiak betetzen ditu eta. Kanpotarrek, eguneroko bizimodua eta lana inguruko herrietan egin lezakete eta hori gertatu ezker, Soroluzek herri txiki moduan izan duen gizarte kohesio handia murriztuko litza-teke.

Egoitz Unamuno

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soroluze
GIPUZKOA





MAPFRE
MAPFRE SOROLUZE

JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA
JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SOROLUZE

Pelota

Aritz Laskurainek Asperekin debutatuko du Bergaran

Aritz Laskurainek gauzak ondo baldin badaoaz maiatzaren 19an egingo du debuta profesional mailan Bergarako Udal Pelotalekuan. Debuta maiatzaren 19rako programatua dago baina Aritz-ek azken egunetan izan duen eskuko mina sendatuko ez balitz egun hori atzeratu egin beharko litza-teke. Aritz bere esku dagoen gutzia egi-ten ari da partidua ondo preparatzeko eta ez du nahi bere profesional mailako lehen partiduan duen maila baino behe-



ragotik jokatzea. Aritz eta Aspe enpresa eibartarra urte haseran iritsi ziren akordio batetara Aritz profesional mailara pasatzeko eta orduandik eta batez ere azken hilabeteotan Aritz Aspeko gainontzeko pelotariekin aritu da entrenatzen eta orain prest aurkitzen da debuta gauzatu eta profesional mailan jokatzeke. Laister pelotari profesional bat izango dugu herrian, zorte izan dezazula Aritz.

Iñaki Jauregi Tolosako lauterdi barruko finalean

Iñaki Jauregi Tolosako lauterdi barruko txapelketako finalera iritsi da. Finala maiatzaren 18an (domeka) jokatu-ko du Tolosako Beotibar pelotalekuan.

Atletismoa

Garazi Arizagak brontzezko domina

Garazi Arizaga soraluzetar atleta gazteak Brontzezko Domina lortu zuen Eibarko Unben jokatu zen Gipuzkoako alebin mailako txapelketan. Garazik 2.000 m egin zituen 7.49.37ko denboran. Zorionak eta segi holaxe!

Txirrindularitza



Akitza Peña garaile V. Soraluze Sarian.



Pelotoiak ahaleginak egin zituen baina ez zuen lortu Olarraoak harrapatzerik.

Joan zen domekan ospatu zen afizionatu mailako Soraluze sarian Olarra taldeko Akitza Peña-k lortu zuen garaipena 2:59:51 denborarekin. Ruben Perez bere taldekidea denbora berean sartu zen helmugan eta hain zuzen txirrindulari hau izan zen mendiko sailkapeneko lehen postua lortu zuena.

Unai Elorriaga Café Baque Taldekoa hirugarren sailkatu zen 2:40ra.

Eguraldi onari eta bolondresen laguntzari esker ez zen inolako arazorik izan antolaketa mailan, hori bai lasterketari 83 txirrindularik eman zioten hasiera baina 41 bakarrik heldu ziren helmugara.

Antolatzaileen partetik eskerrik beroenak eman nahi zaizkie lasterketa hau aurrera ateratzen lagundu duten gutziei.

Futbola

Hil ala biziko partidua

Sorako erregionalak hil ala biziko partidua jokatuko du astebukaera honetan Ezoziko futbol zelaian. Kilimonen aurka lortutako garaipenaren ostean, talde nagusiak bi jipoi garrantzitsu jaso ditu eta sailkapenean Kilimon-ekin sailkapenean berdinduta dago baina bien arteko "golaberagea"-n Sorak irabazten duenez orainoz berak mantentzen du kategoria. Azken ihardunaldian bi taldeak etxean jokatuko dute Kilimonek Tolosaldearen aurka eta Sorak iada jaitsia dagoen Gazteak talde eibartarraren aurka.

Futboleko azken emaitzak

Regionala

Sora 1 – Elgoibar 2
Ilintxa 6 – Sora 0

Jubenila

Sora 3 – Billabona 3
Antzuola 1 – Sora 3

Xuban Catalan

Maria Luisa Blasco

Margolaria

“Egitten dozuna sentitzen ez badozu... egitten dozunak ez dau indarririk izango”

25 urte inguru daramatza Maria Luisak pintore lanean. Estudioan sartu orduko, erabat txunditurik utzi gaituzte erakusgai dituen margolanek. Maria Luisak zehaztasun harrigarriaz lantzen ditu bere margolanak. Ez da harritzekoa; egunean 6-7 ordu ematen ditu lanean.. Dagoeneko 10 erakusketa baino gehiago eskeini ditu (Eibar, Elgoibar, Azpeitiko Antxietan...) eta hain margolari gutxiak dominatzen duten tenplearen teknika zaharraz baliatzen ere badaki. Orain 15-16 urte Eibartik Soroluzera aldatu zenetik, Soroluzen pinturarako afizioa piztu nahian, Jaietako Margolan Erakusketaren eta Kaleko Margolan Lehiaketaren bultzatzaile nagusietako bat izan da.

Nundik datorkizu pinturarako afiziñua?

Ni damaskinatzailea eta burilista naiz. Eibarko Arte eta Ofizio eskolan grabatu ikasketak egin nittuan eta gero dibujo ornamentala be ikasi neban. Eibarren egin neban lan eta hantxe, azkenengo 5 urtietan, era kasual baten, burilista hasi nintzan. Ofiziua erakutsi zosten edadetuak pintoriak ziran danak eta batez be Paulino Larrañagak erakutsitta sortu jatan pinturarako irrika. Paulinok berak bultzatuta, Eibarren hutsik zeguan ganbara zahar baten estudiotxo bat egokitu neban eta hantxe hasi nintzan pintatzen, 1.976xan edo. Ordurartekua moduan, ordutik aurrerakua be neure kabuz ikasi dot, autodidakta moduan.

Zein da zuk pintatzeko erabiltzen dozun teknikia?

Oleoa, Tenplea, Sangina eta Ikatza-kin marrazteko tenikak dominatzen di-



Maria Blasco etxeko estudioan margolan bat osatzen.

tut. Estilo inpresionistan, kolore asko eta pintzeladak oso markatuak izaten diranez, estilo hau lantzeko oleoan marrazten dot. Lantzen doten beste teknika bat, tenplea da. Tenplean margotzeko, marguak norberak egin bihar dittu (kolore hauts naturalak eta arrautzak nahastuta). Horrek lan haundixa eskatzen dau. Nere lanik pertsonalenak tenplian egitten dittut. Tenplea oso jente gutxiak erabiltzen dau. Nik Eibarko edadeko pintore batekin ikasi neban; Fernando Beorlegirekin.

Ze estilotako margolarixa zara?

Nik ezagutzen dittuten pintoriak ez dira nerekin identifikatzen eta neu bez eurekin. Madridgo Arkon erakustokixan egoten dan Bilboko kritikok batek, inauguraziño baten nere lan bat ikusi eta neregaittik galdetu zeban. Kritiko horrek esan zotan nere estilua lirikua dala, ni pintore liriko bat naizela. Poesia eta armonia erabiltzen dituan. Oso jente gut-

xi ei dago munduan estilo honetan margotzen dabena. Kritika horrek asko bete ninduan. Arte munduan, zeozer berezixa egitten dozula eta sortzailia zarala entzutia da entzun leikian kritikarik polittena. Orduan hasi nintzan idazten eta dagoeneko 100 poema idatzi dittut eta nobela bat idazten be hasi naiz.

Pintore izatetik bizitzeko aukerarik ikusten dozu?

Hontaz ezin leike bizi. Hori utopia bat da. Hau egitten badozu da gustatzen jatzulako. Dudarik ez, urtiak pasau ahala, ezagunagua zarala eta noizian behin zeozer saltzen dozula baina hala ta be... Nik ezagutzen dittut pintoriak, zeozer saltzen hasi diranak 70 urte pasau ditzutenian. Lan hau bokazionala da.


Ni oso pozik nago egin doten ibilbidiarekin eta lortu doten mailarekin. Horrek aurrera jarraitzeko indarra eta animua emoten dosta.

Egoitz Unamuno

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik!!

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



Musika Eskolakoek 3. Saria lortu dute Elgoibarren

Joan zen apirilaren 27 eta 28an egin zen Elgoibarren Instrumentu Taldeen I. Lehiaketa. Bertan "Euskadi osoko" hainbat herritako musika eskoletako taldeek parte hartu zuten. Sorraluzeko Musika eskolatik bost taldek hartu zuten parte eta horietako batek 3. Saria lortu zuen 9 urteko mailan. Hona hemen taldea osatzen zuten gitarra eta biolinjole gaztetxoek zerrenda: Uxue

Gallastegi, Leire Garzia, Elene Oregi, Ane Laderas, Maitane Iglesias, Katariñe Berrueta, Nerea Alvarez eta Miren Goenaga.

Bestalde, Musika Eskolak jakinarazten du, datorren ikasturterako matrikulatzeko epea zabalik dagoela eta musikazale gustiak gonbidatzen ditu datorren ekainaren 14an, ikastolako frontoian egingo duten emanaldira.

Maisuen etxeko Kultur taldeendako lokalak Estazioko lantegi batean

Udaletxetik jakinarazi digutenez, Udala Maisuen Etxean dauden Kultura Taldeak estazioko Etxehun-Etxebarri lantegiaren lokaletara aldatzeko asmatan dabil. Dagoeneko, lantegiaren jabeak eta Udalak lortu dute alokairuaren inguruko adostasuna eta orain, taldeen eritziaz zai dago Udala lantegiaren egokitzapen lanei ekiteko. Maisuen etxean; Futbol taldea, Musika Eskola, Pil-Pilean Kultura Elkarte, AEK, E.H.E. eta Ibilixan Ibilixan bertso eskola daude momentu honetan eta badi-rudi Udalak lokal berri bat eskeiniko diela estazioko lantegian Maisuen Etxeko pisuak hustearen ordainetan. Aurrerago, Ikastola Zaharra husten denean, ez da baztertzeko Ikastola Zaharra herriko gizarte mugimenduaren egoitza moduan erabiltzea.

Kaleko X. Margo Lehiaketa

Udaletxeko Kultura Batzordeak antolatuta, datorren maiatzaren 24an egingo da Kaleko X. Margo lehiaketa Sorraluzen. Izen ematea egunean bertan egin ahal izango da Udaletxeko Zinegotzi Gelan. Lehiaketak bi maila izango ditu; A. maila (14urte artekoak) eta B. Maila (14 urtetik gorakoak). Parte-hartzaileek eurak ekarri beharko dituzte materialak eta lehiaketaren gai Sora-

luze izango da. Sari banaketa maiatzaren 26an bertan egingo da, arratsaldeko 18:30etan Udak Kiroldetik erakusketa aretoan. Sariak 110, 90 eta 70 eurokoak izango dira A.Mailan eta 480, 300 eta 180 eurokoak B.Mailan. Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai izango dira ekainaren 8a bitartean, Kiroldetik erakusketa aretoan.

Sorginen Laratzera ikusle moduan

Maiatzaren 22an Pil-pilean Kultura Elkartearen bitartez ETBko Sorginen Laratza programara joango dira 50 plentxiar. Programara joan ahal izateko, 20 urte izan eta hilaren 20a baino lehen eman behar da izena. Horretarako 943 75 13 04 telefonora deitu eta izena eta NAN zenbakia eman behar dira. Autobusa 20:30etan aterako Gila zubitik eta 00:30ak alderako izango da bueltan. Animatu eta deitu bizkor!

Euskalkiaren inguruko liburu berri bat

Deba Ibarreko Badihardugu Euskara Elkarteak "Deba Ibarretik Euskararen Herrira" liburua kaleratu berri du. Liburu berri honek, "Hizkeren erabilpeneko argibide eta proposamen batzuk emotiaz gain, Deba Ibarreko herri-berbeten ezaugarri linguistikuak be bada-

kartaz". Liburu hau, Ermua ezik Deba Ibarreko Udak guztien laguntzarekin argitaratu da eta hori dala eta herririk herri aurkezpenak egiteko asmoa dago. Sorraluzen ere egingo da, oraindik eguna zehazturik ezbadago ere.

Egoitz Unamuno




aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Sorraluze

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Sorraluze

Maite Kintanilla

"Denboria atzera botatzeko boteria eukitzia nahiko neuke"

Hamairu urteko gaztetxo jator alai eta zabala ekarri dogu zuzen zuzenian estaziñotik Pil-pileanera. Umia ez dala badaki, gaztetxua edo..., dibertitzeko gogo handixa daukala diñosku elkarrizketiak aurrera ein ahala. Geuk izan dogu berakin dibertitzeko aukeria eta ia zuen jakinminak eruatzen zaittuen geu beste dibertitzera.

-Izen abizenak

Maite Kintanilla

-Zaletasunak

Mendixan ibiltzia eta irakurtzia gustatzen jaka

-Koloria, lekua, erropia, abestixa, zenbakixa eta animalixa.

Urdina, mendixa, aitormena, 8xa, eta delfina

-Bapo geratzeko modoko bazkarixa

Makarroiak, oilaskua eta gainian laranja bat..edateko ura.

-Zeri ez zenkixoke ezetzik esango

Bidaia bat eittiari

-Biozu...

Osasuna eukitzia

-Noiz, nora, zeinekin eta zertara

Udan kanpinen batera lagunekin ondo pasatzera

-Ze falta jako Plazentziari

Gauza asko, gaztiendako batez be. Neguan gustora egoteko tokiren bat...

-Irla batera

Laguna, janarixa eta.....dirua

-Egun borobila

Goizian mendira, arratsaldian hondartzara eta gabian parranda

-Zeri dotsazu bildurra

Hiltzailieri

-Goguan daukazu

Umetan ziburuetan ibiltzen nitzan sasoi

-Manixa bat

Nere ahiztian gauzak jasotzia

-Eindako gaiztokerixaren bat


Txikixa nintzarian jarri nitzan barraketan eta ondokuari haginka ein notsan.

Bertso Begiz

*Soinujolian alaba dogu
gure Maite Kintanilla.
Neska gaztia deittu neikixo
jada ez da neskatila.
Egin dau aitormena,
zer dan nahiko leukena;
morroi hartzi denbora.
Botere hori lortzen badozu
ezeizu egin aproba.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Maite Kintanilla

-Ze botere eukitzia gustauko litzaizuke

Denboria atzera botatzeko boteria

-Lehen, oin gero

Lehen umia, oin gaztia oo... eta gero ama edo ez dakit

-Plazentziarrak

Oso jatorrak gara, alaiak eta jendia-kin oso zabalak

Gururu



IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Argazki zaharra



Mauri Garmendiak lagatakua da 1.922ko argazki hau. Ez berak eta ezta herriko zaharrenak be ezin izan doskue foballista danen izenik emon, baiña falta diran hirurak igual Eibartik ekarrittako “fitxajjak” izango zirala esan doskue. Banan-banan hartuta, nortasun haundiko gaztiak emoten dabe, tonto usaiñik barekuak. Honek dira gehixenen izenak (parkatuko ete doskue falta diranen seni-diak?):

Zutik, ezkerretik eskumara: Juanito “Baltza” Arana, ? , Felipe Artolazabal “karnizerua”, ? , José “Porrot” Iraeta , Isaac Arrieta eta Ziriako Etxaniz; Jarritta: Pedro “Urramendi” Zabala, ? , Rufino Zabaleta “Galarraga”, Martin Gardoki “Txitia” eta Inazio Larrañaga “Aldianuanekua”

Jon Basauri

Eukararen ajieri, sendabelarra.



Lagunduko dostazu?
ONDO



Laguntzen dostazu?
GAIZKI

Zeozer eskatzeko orduan euskeraz etorkizuna erabiltzen da; “Lagunduko dostazu?, margotuko dogu?, egingo dogu?” Eta ez; laguntzen, pintatzen eta egiten... Gero eta sarrixago entzuten dira kalian holakuak. Sarrittan “laguntzen dostazu etxeko lanak egitten?” esaten da. Baina.....hemendik aurrera; “etxeko lanak egitten lagunduko dostazu?”

Eta literaturaz zer?

arreba txiki bat dut, eta zer?


J.M. Olaizola “Txiliku”
Jokin Mitxelena
32 orrialde



Iñakik arreba txiki bat edukiko du laster. Alde batetik, oso pozik dago, baina, bestetik, baditu bere kezak ere, bere lagun Manueltok berotu baitio burua arreba txikiei buruz gaizki hitz eginez.

Galdera: Ondo konpontzen zara zure arreba/anai txikiarekin?

Deitu 943 751304 telefonora eta irabazi liburua.
Aurreko lehiaketako irabazlea: Maite “Txurrukazpi” (deitu)



**Limpiezas
industriales**

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

**opari
zoragarriak
eraman itzazu**

**oakley metala:
oakley giltzatakako
esklusiboa opari**

**oakley pasta:
oakley pegatina
esklusiboak opari**

eta gainera...



**oakley
erloju
haten
zozketan
sartuko
zara**



OAKLEY
esklusiban zuretzat

MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

Euskal Jaia 2.002

Euskal Jaiarako Laguntza Fitxia

(etxian dantzarixak hartu edo diru-laguntza emon zeinke)

Ekainak 2-xan Soraluzeko haurren XXXII. EUSKAL JAIXA antolatzeko asmotan gabiltza. Horretarako, urtero moduan zuen laguntza bihar dogu. Euskal Jaixa antolatzeko zure laguntzia emotia nahi badozu; Laguntza Fitxa hau bete eta bota Udaletxe azpiko buzoian.



LAGUNTZA FITXA

Izen-abizenak : _____

Helbidia: _____

Telefona: _____


Haur kopurua: ____ Dirulaguntza: _____

Esbertuko genuke Laguntza Fitxak maiatzaren 25a baino lehen helaraziko bazenituzte.

Argibide gehiago 605 706 086 telefonoan.

Antolatzailea: Euskal Jai Batzordea
Laguntzaileak: Soraluzeko Udala
eta Pil-pilean Kultura Elkarte

ELGOIBAR B.H. Institutua 2002/2003



Arregitorre, 2
Tel. 943 74 80 19
Faxa. 943 74 82 30
E-posta: bulegoa@elgoibar.hezitek.net

ERDI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK

(A eta D eredua)

Merkataritza

Ibilgailuen Elektromekanika

Karrozeria

Erizaintza Laguntza Osagarriak

GOI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK

(A eta D eredua)

Administrazioa eta Finantzak

Automozioa

Ingurugiro Osasuna

AURREMATRIKULA EPEA: ekainaren 3etik 12ra arte

600 ikasle inguru beraien etorkizuna jorratzen · Azpiegitura teknologiko aurreratua.
Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz · ISO 9002 kalitate ziurtagiria. Prozedura garden eta kontrolatuak · 80 lizentziatu, ingeniari edo diplomatu. Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako prestakuntza zuzena · Lanpostua berehala lortzeko aukera · Lanbide heziketako sare integraleko partaidea.



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

